

FAUNA PUBLIKOA

**“Aldaketaren gobernua
identifikatu dute oztopo nagusi
gisa beraien ‘kalimotxoaren
iraultza’ egiteko”**

**Itziar Gomez, Geroa Baiko zinegotzia Iruñeko
Udalean, Maravillas gaztetxearen aferaz
(Diario de Noticias)**

Hitz egin nirekin, zerria




Gorka Bereziartua Mitxelena
@boligorria

Badaude gauzak, zailak direnak bateratzen. Batzuetan aukeratu egin behar da. Adibidez, palestinarren alde zauden ala israeldarren alde. Adibidez, greba egin ala eskirola izan. Adibidez, nik zer dakit, Sadarren jokatzeko dutenean Osasuna animatzen duzun ala Real Madril. Bat ala bestea. Beti ezin baita bata *eta* bestea egin. Eta hobe da ez saiatzea ere; zeren, saiatzen zarenean, emaitza geratzen da, gutxi gorabehera, Lizarrako San Jorge geratu den bezala: XVI. mendeko eskultura bat zaharberitu *eta* Capitan Trueno komikiari omenaldi bat egin nahi izatea, dena batera, hegazkin txartela erostea da Irrigarri Geratu Naiz konpainiarekin bidaiatzeko.

Abioi horren *business classean* aurkitu dugu, portzierto, Geroa Baiko Iruñeko zinegotzi bat. Abuztuaren 26an erreserbatu zuen hegaldi-txartela *Diario de Noticias*-en publikatutako artikularekin, zeinean saiatu den ezkonezinak diren bi gauza egiten: bere alderdiak gaztetxearen afera konpontzeko daukan elkarrizketa-borondatea azpimarratu; *eta* gaztetxeo kideak iraindu, koka-kolaz *eta* ardo merke osatutako koktel baten parrastada haien aurpegira botatz. “Zurekin hitz egiteko prest nago *eta* okupa kalimotxozale zorritzot bat zara” da mezua, gutxi gorabehera. Dialogo erakitzaile bat hasteko gonbidapen aparta, inondik ere.

Hemeroteka, gainera, urde kabroi bat da kasu hauetan *eta* zinegotzi beraren hitzak erakusten ditu Euskal Jai gaztetxeari buruz hizketan 2009an: “Gaztetxe gisa erabiltzeko okupatu zuten *eta* eskaini zion, gaztediari orokorrean *eta* Alde Zaharreko auzoari partikularki, espazio diferente bat, alternatiboa, irekia, ilusionagarria *eta* parte-hartzailea”. Kalimotxoaren iraultzak gehiago molatzen zuen lehen antza. ■

**EZ
HANKA
EZ
BURU!**



ADUR